

ERAKUNDEAREN DATUAK

1. Erakundearen izena:	IMH Campus
2. Sektorea:	Hezkuntza
3. Langile kopurua:	115
4. Webgunea:	www.imh.eus
5. Erakundearen jardueraren deskribapena: (produktu eta zerbitzu nagusiak, merkatua, bezero motak...):	<p>IMH Campusen fabrikazio aurreratuaren arloko adituak prestatzen ditugu, etorkizuneko industrian gehien eskatzen diren trebetasunak eta gaitasunak dituztenak alegia, lanbide-heziketaren, unibertsitate-prestakuntzaren eta enplegurako prestakuntzaren bidez. Emakume eta gizon horiek gaitasun teknikoak eta giza gaitasunak garatzen dituzte, eta lortzen duten talentuaren bidez ekarpena egiten diete IMH Campusekin elkarlanean jarduten duten enpresetako proiektuei.</p> <p>IMH Campuseko zuzendaritza taldeak, erakundeko gainerako pertsonekin batera, bere gain hartzen du bezeroei kalitatezko zerbitzua eskaintzeko erantzukizuna, haien eskakizunak eta itxaropenak betez, euskararen erabilera eta hizkuntza-aniztasunarekiko errespetua bultzatuz, ingurumena babestuz, eta laneko baldintza seguruak eta osasuntsuak bermatuz bere eragin-eremuan.</p> <p>Jarduera nagusiak:</p> <ul style="list-style-type: none">• Lanbide heziketa (Eusko Jaurlaritzako Ikastetxe Integratu Publikoa da).• Unibertsitate Prestakuntza (UPV/EHUrak atxikitutako zentroa da).• Enplegurako Prestakuntza.• Proiektuak enpresekin. <p>Lanbide Heziketa</p> <p>Goi-maila</p> <ul style="list-style-type: none">• Fabrikazio mekanikoko diseinua• Fabrikazio mekanikoko produkzioaren programazioa• Mekatronika industrial <p>Espezializazio programak</p> <ul style="list-style-type: none">• Etekin Handiko Mekanizazioa

- Fabrikazio Aurreratuko Makina Erremintako Proiektuak Abiatzea.

Erdi-maila

- Mekanizazioa
- Lan-mantentze elektromekanikoa

Espezializazio kurtsoa:

- Fabrikazio Aditiboa

Unibertsitate Prestakuntza

- Prozesu eta Produktu Berrikuntzan Ingeniaritza Gradu Duala
- Digital Manufacturing Unibertsitate Masterra
- Fabrikazio Aditiboan Unibertsitate Espezializazioa

Lanerako prestakuntza

- Ikastaroak langile eta langabeentzat. Arloak: Diseinua, Fabrikazioa, Metrologia, Kalitatea, Automatizazioa eta Muntaia, Antolaketa Industrial, Pertsonen Garapena, Informatika, Hizkuntzak.

Proiektuak enpresekin

- Nagusiki enpresa txiki eta ertainak. Lantzen diren eremuak: fabrikazio Aurreratua, fabrikazio digitala, fabrikazio aditiboa eta pertsonen kudeaketa eta garapena.

Harremanetarako datuak

Solaskidearen izen-abizenak: Edurne Bilbao

Helbide elektronikoa: euskara@imh.eus

Telefonoa: 943744132

KUDEAKETA AURRERATUA
EUSKALIT
GESTIÓN AVANZADA



KULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILA
DEPARTAMENTO DE CULTURA
Y POLITICA LINGÜISTICA

PRAKTIKA ONAREN AZALPEN LABURRA

1. Praktika onaren titulua:	Lanbide Heziketako ikasleek lantokiko prestakuntza euskaraz ere egiteko aukera izatea
2. Praktika onaren azalpena: Zer da? Zertan datza? Nondik dator? Zeintzuk dira onurak, lortu diren emaitzak?	<p>Lantokiko Prestakuntzan enpresarekiko harremanak euskaraz izan daitezen sustatu, baldintza egokiak badira (irakasle, instruktore eta ikasle euskaldunak).</p> <p>Langileekin gai honen inguruko proiektuak sustatu eta elkarlanean aritzen gara Ahize-AEK hizkuntza-aholkularitzarekin elkarlanean:</p> <p>Ahize-AEK hizkuntza-aholkularitzaren eginkizun nagusiak izan dira PDCAren pauso bakoitzean:</p> <ul style="list-style-type: none">• Ikastetxeari lagundu egitasmora gonbidatu nahi duen enpresa berri bat aukeratzen.• Egitasmoa aurkeztu enpresa berriari, bere egoera aztertu eta hobetzeko proposamenak egin.• Aritutako enpresa bati ere hobetzeko proposamenak egin.• Itzulpenak egin (3.500 hitz).• Udalaren eta beste erakundeen dirulaguntzei buruzko informazioa eman enpresei. Eskaera egiten lagundu hala behar dutenei.• Sentiberatze saioak

PRAKTIKA ONAREN INGURUKO DOKUMENTAZIOA, IRUDIAK, GRAFIKAK...

Sentiberatze saioen balorazio datuak:

IMH				
Balorazio orokorra (1-10 arteko puntuazioa)	Eus	7,68	Gazt.	7,75
Saioaren luzera (1-3 arteko puntuazioa)		2,77		2,62
Dokumentazio egokia		2,33		2,87
Azalpenak		3		2,75
Giroa		2,8		2,87
Dinamizatzailea		2,80		2,87
Nire parte hartzea		3		2
Gainerakoen parte hartzea		2,52		2,37

Balorazioetan agertu diren oharrak:

- Euskara galtzen ari da, ez dut sinesten proiektuetan, irakasle askok nahiago dute erdaraz egin.
- Dinamikoagoa izatea
- Txupatxus gehiago
- Estatistikak mundialak
- Jolasak
- Betiko azalpenak izan dira.
- Bideoak gehitu beharko lirateke.
- Jokoa.



KUDEAKETA AURRERATUA
EUSKALIT
 GESTIÓN AVANZADA



KULTURA ETA HIZKUNTZA
 POLITIKA SAILA
 DEPARTAMENTO DE CULTURA
 Y POLITICA LINGÜÍSTICA

Lanbide Heziketako ikasleek lantokiko prestakuntza euskaraz ere egiteko aukera izatea , horretarako Elgoibarko enprekin harremanak sustatzen dira eta hauek dira lortu diren emaitzak:

IMHko lanbide heziketako ikasleak hartu dituzten enpresak:

Enpresa bati leloa itzuli zaie, beste batek ISO eta datuen babeserako dokumentuak itzuli nahi zituen, beste enpresa batek adierazi zuen eskolarekin hartu-eman euskaraz zela, baina lantegi barnean ikasleak ezin euskaraz egin ,tutorea euskalduna den arren, lantegiko gainerako arduradunak erdaldunak direlako.

KUDEAKETA AURRERATUA
EUSKALIT
GESTIÓN AVANZADA



KULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILA
DEPARTAMENTO DE CULTURA
Y POLITICA LINGÜISTICA